AURRERAPEN AGIRIA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK KUDEATZEN DITUEN ATSEDENLEKUEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKION AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren ekimenez, Aldundiak kudeatzen dituen atsedenlekuak arautzeko araudi propio bat sortu nahi da.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere araudia sortuz, berak kudeatu behar dituen atsedenlekuen erabilera antolatu nahi du

b.- Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

Araudi horren helburua da atsedenlekuen erabilera egokia sustatzea eta, betiere, erabiltzaileei eta inguruneari kalte egin diezaieketen egoerei aurrea hartzea, herritar guztiek goza dezaten Foru Aldundiak kudeatzen dituen aisiarako eremu horietan. Bizkaian 100 bat atsedenleku daude han-hemen.

c.- Arauaren xedea

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen atsedenleku edo aisiaguneen erabilera eta gozamena antolatuko dira eta arauak betetzen ez dituztenei jarri beharreko zehapenak zehaztuko dira.

Atsedenlekuak aire zabaleko eremuak dira, altzariz hornituak, egonaldi laburrak egiteko, baina gaua igaro gabe, eta aire zabaleko aisiako jarduerak egiteko.

d.- Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Gaur egun ez dago araudirik aisiarako eta atsedenerako eremuetan zer egin daitekeen eta zer ez herritar guztioi adierazten digunik. Uste dugu, beraz, araudi horren

DOCUMENTO DE AVANCE

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LOS USOS DE LAS AREAS DE ESPARCIMIENTO DE GESTIÓN DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

A iniciativa del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural se pretende crear una normativa propia que afecte a las áreas de esparcimiento de gestión foral.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

Mediante la creación de una normativa propia, la Diputación Foral de Bizkaia pretende regular el uso que se hace de las áreas de esparcimiento que debe gestionar

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

La finalidad de esta regulación es promover un uso correcto de las áreas y, en todo caso, prevenir, en la medida de lo posible circunstancias perjudiciales, tanto para las personas usuarias como para el entorno, para que la ciudadanía en general disfrute de estos espacios de ocio, del orden de 100 áreas de gestión foral, a lo largo y ancho de toda Bizkaia.

c.- Objeto de la norma

De esta forma, se regulará el uso y disfrute en las áreas de esparcimiento o áreas recreativas gestionadas por la Diputación Foral de Bizkaia y se establecerán las sanciones que se deriven en caso de incumplimiento.

Se entiende por área de esparcimiento toda superficie o entorno al aire libre habilitado con mobiliario para realizar estancias de corta duración sin pernoctar en el lugar y realizar actividades de recreo al aire libre.

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

Hoy en día, no existe una regulación que nos indique a toda la ciudadanía que se puede o no se puede hacer en un área destinada al ocio y al esparcimiento. Por lo tanto,

beharra dagoela, denok jakin dezagun zer arau bete behar ditugun.

**e.- Arau-proposamenak ukitutako helburu publikoak eta nortzuei zuzendu behar zaien.**

Bizkaitar guztiei eragingo lieke onartu nahi den araudiak.

creemos que es necesario que exista dicha regulación para que todas y todos conozcamos a que reglas atenernos.

**e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.**

El total de la ciudadanía de Bizkaia se vería afectada por la normativa que se pretende adoptar.